

HERNANI2022

AURRERA GOAZ, GOGOZ ETA ILUSIOZ

UDAL ALDIZKARIA • REVISTA MUNICIPAL
MAIATZA MAYO




Hernaniko
Udala

Gudarien plaza 1. 20120 Hernani

Tel. 943 337 000

www.hernani.eus





HERNANIREN ETORKIZUNA ELKARREKIN MARRAZTEN

2022a aurrera doa eta, horrekin batera, baita legegintzaldi hau ere. Munduan izandako gertaerek markatutako legegintzaldia izaten ari da hau. Krisi sanitarioarekin batera heldu diren krisi ekonomiko, sozial eta humanitarioak zuzenean eragiten dute gure herriko eguneroko bizitzan. Horietatik guztietatik ikastea dagokigu. Udalaren eronka herri atseginago bat egiten aritzeaz gain, herritarren beharrei erantzuna ematea ere bada. Hernanin, zorionez, badaukagu ehun sozial bat elkarlanean aritzeko eta etorkizunari begirako hausnarketak planteatzeko. Zer nolako Hernani nahi dugu? Nola bermatuko ditugu hernaniarren eskubideak? Galdera horiei erantzuna ematen ari gara Hernani Burujabe plan estrategikoaren baitan. Justizia soziala eta ekologikoa, energia trantsizioa, zaintza lanen demokratizazioa dira lan-ildoetako batzuk eta proiektu zehatzak abian dira horiek lantzeko. Politika egiteko beste modu bat badagoela erakusten ari gara Hernanin, herritarrek erdian jartzen dituen eta administrazioa eta tokiko enprekin batera elkarlanean arituko gara.

Orri hauetan, azken hilabeteetan landu diren eta orain lantzen ari garen proiektuen laburpen bat ikusteko aukera izango duzue. Legegintzaldiaren azken urtean sartzera goaz, baina hau hasi besterik ez da egin. Zailtasunak zailtasun proiektuz beteriko etorkizun oparoa daukagu Hernanin. Jarrai dezagun elkarrekin lanean herri justu, solidario eta jasangarriago baten alde. Etorkizuna gure esku dago.

Nos acercamos al tramo final de esta legislatura, una legislatura especialmente marcada por el contexto mundial. La crisis económica, social y humanitaria que ha acompañado a la crisis sanitaria incide directamente en la vida cotidiana de nuestro pueblo. El reto de este Ayuntamiento es dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía. Afortunadamente, en Hernani contamos con un tejido social con el que plantear reflexiones de cara al futuro. ¿Qué Hernani queremos? ¿Cómo vamos a garantizar los derechos fundamentales de las y los hernaniarras? Todas estas preguntas están siendo trabajadas por todos los agentes implicados en el Plan Estratégico Hernani Burujabe. La justicia social y ecológica, la transición energética y la democratización de los cuidados son algunas de las líneas de trabajo que se están materializando en proyectos concretos. En Hernani estamos demostrando que hay otra forma de hacer política, que pone a la ciudadanía en el centro y que implica la colaboración entre la propia ciudadanía, la administración y las empresas locales.

En estas páginas tenéis un resumen de los proyectos que se han trabajado en los últimos meses y en los que ahora estamos trabajando. Vamos a entrar en el último año de legislatura, pero aún queda mucho por hacer. A pesar de las dificultades, tenemos un futuro lleno de proyectos. Sigamos trabajando conjuntamente por un pueblo justo, solidario y más sostenible. Está en nuestras manos.

XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA

Alkatea

1 ZUBIPE ETA LANDARE UHOLDEETATIK BABESTEKO NEURRIAK GARATZEKO AKORDIOA KLUBEKIN

Hernanik eta Urumea ibaiak lotura estua daukate. Gehienetan harreman baketsua eta gozagarria izaten da, baina, ezusteak eta buruhausteak ere ekartzen dizkigu ibaiak. Zubipen futbol zelaia eta errugbiko Landare erabiltzen dutenek ondo dakite hori.

Klima aldaketaren ondorioz, uholdeak gero eta ohikoagoak izaten ari dira. Azken hilabeteotan urak bi aldiz hartu ditu kirol azpiegitura horiek.

Irtenbideak bilatu nahian, Ura agentziarekin harremanetan jarri da Udala behin baino gehiagotan, baita kirol taldeak ere, eta itxaropenerako izpiak ikusi ditugu orain dela gutxi. Izan ere, Urumeako meandroan eskuhartze batzuk egitea aurreikusten du Ura agentziak eta, horren ondorioz, ibaiaren ertzean dauden herrietan -tartean Hernani- uholde episodioak asko murriztuko direla diote adituek.

Hori kontuan hartuta, Hernanik Ura agentziari eskatuko dizkio lan batzuk egiteko baime-na. Baimen horren baitan, Udalak kirol azpiegitura horietan 2 milioiko inbertsioak egiteko konpromisoa hartu du CDH klubarekin eta Errugby Elkartearekin. Diru horrekin egingo diren obrei esker, futbolaren eta errugbiren bueltan biltzen diren ehunka hernaniarren kirol jarduera baldintza onetan egin ahal izatea bermatuko litzateke.

Mejorar las infraestructuras de Landare y Zubipe es una de las prioridades para este último curso. Los campos de fútbol y rugby tienen deficiencias que se agravan cada vez que se desborda el río y quedan anegados. Para tratar de dar con una solución definitiva a este problema, el Ayuntamiento y los clubes han acordado presentar un proyecto conjunto a la agencia Ura. El Ayuntamiento, por su parte, se ha comprometido a invertir 2 millones de euros en los próximos años para mejorar la situación de los y las centenares de hernaniarras que usan estas instalaciones. Estas intervenciones se harán teniendo en cuenta los criterios permitidos por la agencia Ura.



2

MAMITZEN ARI DIREN PROIEKTUAK

Legealdia amaitzeko urtebete eskas falta da, baina oraindik proiektu batzuk egin edota bideratzen hasteko denbora dago.

Bizikidetzaren arloan Hernanin egin den lanik esanguratsuen liburu batean bildu eta herritarren eskura egongo da aurten. Izan ere, Udalaren enkarguz, Aranzadi Elkarteak osatu duen **“Motibo politikoz urratu diren giza eskubideak eta beste sufrimendu batzuk. Hernanin eta hernaniarrei gertatuak (1960-2018)”** txostena liburu formatoa hartuta plazaratuko da.

Urumea eremuko urbanizazioaren plangintzak ere lehen urratsak egingo ditu aurten. Urumea ikastolaren eraikin zaharra eraitsita, 26 etxebizitza, 1.500 m²-ko plaza bat eta lur azpiko errotaziozko aparkaleku publiko bat egitea aurreikusten du 2011n berritutako HAPOn (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra). Plan orokor hori garatzeko Plan Berezi bat egin behar da eta, horretarako, herritarren partaidetza sustatuko du Udalak.

Energiaren enpresa handienekiko menpekotasuna murriztu nahian, **plaka fotovoltaikoak** ere ikusiko ditugu datozen hilabetoetan. Udalak plakak erosi eta eraikin publiko batzuetan jarriko ditu. Enherkom kooperatibako bazkide eginda, herritarrek energia berriztagarrien aldeko apustua egin dezakete eta horrek dakartzan onuraz baliatu.

Florida 08 eremuan plan anbiziotsu bati ekingo dio Udalak. Izan ere, AMRko lurzoruaren lekua urbanizatzeko asmoa dago. HAPON aurreikusten den bezala, bertan 308 etxebizitza eraiki daitezke. Horietako 176 Babes Ofizialeko Etxebizitzak izango dira eta 132, tasatuak. Horrekin bi helburu lortuko dira: degradatutako eremu bat berreskuratzea eta herrian beste etxebizitza promozio publiko handi bat egitea.

Portu-Karabel oinezkoentzako ibilbidea ere laster ikusi ahalko dugu. Renfeko apeadero berriaren obra amaituta, Portu eta Elizatxo Karabelekin lotzeko bidea egiteko lanak iaz hasi zituen Udalak. Lur pribatuak tartean daudenez, desjabetzak egiten ari dira. Proiektua jada eginda dago eta datozen hileotan obraren exekuzioa lizitatzeko asmoa dago.

Bukatu berriak dira herri osoan zehar asfaltatze sakonak eta konponketa puntualak. Datorren kanpaina **landa-bideetan** jarriko da arreta berezia.

Couth enpresaren eraikin berria Hernanin geldituko da eta, horrekin, urtetan geldirik egon den **Galarretako teknologia-parkearen garapenari** bide emango diola espero dugu. Hernanin sortutako enpresa horrek, beraz, herrian eraikiko du etorkizuna.



Turismo Arloan ere webgune berriarekin ari gara, alde historikoan barrena audio-gidaren bidezko bisitak laster egongo dira eskuragarri eta gure baliabide naturalak eta kulturalak baliorez jartzeko beste ekimen batzuk ere eskuartean dauzkagu. Mendi ibilbideen seinalizazioa, esaterako, egin berri da.

La urbanización del espacio en el que actualmente está la antigua ikastola Urumea ya está recogida en el Plan General de Ordenación Urbana que se renovó en 2011. Además de 26 viviendas, se prevé un espacio de 1.500 m² para una plaza pública y la construcción de un aparcamiento público rotacional subterráneo. Para decidir los detalles de esta urbanización, se pondrá en marcha un proceso participativo.

Además del centro, se prevé urbanizar la zona de Florida. En los terrenos de AMR se proyectan 308 viviendas, 176 de protección oficial y 132 tasadas. Con esta intervención se consiguen dos objetivos: ampliar la oferta de vivienda de promoción pública y regenerar una gran parte de este barrio.

Los caminos rurales también serán objeto prioritario de la campaña de asfaltado prevista para este año.

El proceso de construcción del camino peatonal que une Portu con Karabel y con el apeadero de Renfe ya está en marcha. Sólo falta licitar y adjudicar la obra, lo que se prevé para este año.

Dentro de las inversiones para fomentar la transición energética, el Ayuntamiento prevé instalar placas fotovoltaicas en varios edificios públicos para generar energía, de la que podrán beneficiarse centenares de hernaniarras a través de la cooperativa Enherkom.

Otro proyecto que se materializará es la publicación del libro que recoge el trabajo de documentación realizado por Aranzadi, sobre las vulneraciones de DDHH entre 1960 y la actualidad.



3

HERNANI BURUJABEREN HAZIA EREIN DA

Hernani Burujabereren aurkezpen publikoa egin zenetik (2021eko urriaren 1ean), urrats garrantzitsuak egin dira: **energiaren arloan** burujabetzarantz Energia Berriztagarrien Komunitatea (Enherkom) sortu da herrian. Horren helburua da energiaren kontsumoa gutxitzea, berriztagarrien aldeko trantsizioa egitea eta enpresa handieki-ko menpekotasuna murriztea.

Zaintzaren arloan, eskualdeko egoera aztertu ostean, zaintzaren pisurik handiena emakumezkoek eta migranteek hartzen dutela agerian gelditu da. Egoera hori aldatzeko eta pertsona horien lan-baldintzak hobetzeko asmoz, zenbait neurri hartuko ditu Udalak. Horretaz gain, adinekoen bakardade ez hautatuari aurre egiteko Auzozaintza programa ere abian da.

Horren bitartean, sektore desberdinen inguruan elkartu diren herritarrak, kooperatibak eta herri mugimenduak **burujabetzen jardunaldiak eta azoka** ere antolatu dituzte hilabeteotan.

Tokiko moneta soziala ere herri-proiektu honen bizkarrezurra da. Horren zabalpena lortzeko Ekhilur kooperatibarekin hitzarmena egin du Udalak.

Hitzarmena ere sinatu du Udalak Henase nekazarien eta abeltzainen elkarte sortu berriarekin. Elkarte hori herriko ekoizleak biltzen ditu eta itun horri esker, **lehen sektorea** sustatzeko ekimenak, aholkularitza, formakuntza saioak, besteak beste, egingo dira urte osoan. Herrilur kontsumo kooperatibak, bestalde, tokiko produktuak herritarrengana gerturatzeko asmoz, denda ireki berri du Izpizua kalean.

Hernani Burujabereren sorrera irudikatzeko graffiti serie bat egin du Nextor Otaño Nexgraff artista gazteak Gabriel Zelaia eraikinaren aurrealdeko horman.



Desde la presentación pública, el pasado octubre, del proyecto popular Hernani Burujabe, se han dado varios pasos. En el ámbito de la energía, con la creación de la Comunidad de Energías Renovables (Enherkom); en el ámbito de los cuidados, con la puesta en marcha del programa de Auzozaintza, impulsado por el Ayuntamiento para reducir la soledad no deseada de las personas mayores. Así mismo, se han firmado sendos acuerdos -uno de ellos, con Henase (para defender los intereses de los y las productoras locales y mejorar la comercialización de sus productos) y, el otro acuerdo, con Ekhillur (para fomentar la implantación de la moneda local para que el dinero de las y los hernaniarras no se vaya a otros municipios), que impulsarán la socialización de los valores y de los proyectos bajo el amparo de Hernani Burujabe. La cooperativa de consumo Herrilur acaba de abrir una tienda en Izpizua kalea para acercar la producción local a la ciudadanía.



4

HERRIA TXUKUNTZEKO ZERBITZU ETA LAN EGIN BERRIAK

lazko udazkenean abiatu zen asfaltatze kanpaina. Ia 400.000 euroko aurrekontuarekin, landa bideak eta poligonoetako bideak izan ziren konpontzen lehenengoak: Martindegi auzoa, Akarregi, Lastaola, Ereñotzu. Ondoren, herrigunearen txanda izan zen. Ertzaintzaren biribilgunea, Lizeaga, Atzieta, Txirrita, Orkolaga plaza, Aristizabal, Perkaiztegi eta Nafar kaleak asfaltatu ziren. Elkanon, Larramendin, Sagastialden, Portun, Txillidan, Floridan eta Osinagako herri-bidean konponketa arinak egin ziren.

Lizeagan, bestalde, Madalena kalearen birgaitze lanak egin dira. Hoditeria eta argiztapena berritu, oinezkoen pasabidea zabaldu eta zuhaitzak landatu dira. Bertan esertzeko bankuak ere ipini dira.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, Garbigune mugikorraren zerbitzua jarri zen martxan martxoan.

Etxean sortutako hondakin bereziak eta arriskutsuak biltzeko zerbitzua da Garbigune Mugikorra. Herrian barreiatuta dauden minipuntuak, batetik, altzariak, etxe-hondakin handiak jasotzeko zerbitzua eta Ibarluze poligonoan dagoen Garbigunea osatzeko helburua du


Garbigune Mugikorrak. Guztira, 16 puntu desberdinetan jarriko da. 24 orduz. Momentuz, abuztura bitarteko egutegia dago osatuta.



En estos últimos meses se ha acometido el asfaltado de numerosos caminos rurales y carreteras del municipio. En total, se han invertido 400.000 euros en mejorar el asfaltado y los accesos a las zonas rurales.

En Lizeaga se ha finalizado la rehabilitación de la calle Madalena, con la renovación de las infraestructuras de saneamiento, iluminación y la mejora de la accesibilidad.

También se ha materializado el Garbigune móvil, una petición popular que se decidió en los presupuestos participativos Hernani Erabaki 2020. Desde marzo y hasta agosto -de momento-, pasará por 16 puntos para facilitar la recogida selectiva en origen de los residuos.



5

ZAINTZA, KULTURA, FEMINISMOA, JASANGARRITASUNA...



Zaintzaren arloan, Auzozaintzaren programa-rekin batera, etxez etxeko laguntza eskaintzen duten pertsonen lan-baldintzak duintzeko 290.000 euro gehiago bideratu ditu Udalak. Horri esker, lehen aldiz Hernaniko etxez etxeko langileek lan-hitzarmena izango dute.

Geuretik Sortuak euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko asmoz Udalbiltzak sortutako programan parte hartu du Hernanik. Hernanin Raul Barreras zinegileak mamitu du Arnasa film laburra. Barrerasen filmak eta beste lauk

"Bost teilatu" lan kolektiboa osatzen dute. Horretaz gain, literatur lanak liburu batean jaso dira eta 5 antzezlan ere sortu dira programa horri esker. Egun herri herri zabaltzen ari dira.

Feminismoaren aldeko eta arrazismoaren aurkako erreferenteak ezagutarazteko eta haien ekarpena balioan jartzeko asmoz, Gobara podcast seriea sortu dute Kulturarteko Plaza Feministan. Hiru atal daude jadanik entzungai. Hemendik aurrera, hilabetero erreferente berri baten inguruko atala plazaratuko da.

Kulturarteko Plaza Feministan ere, passivhaus ziurtagiria jarri dugu aurten. Plaka hori Hernanik jasangarritasunaren alde egindako apustuaren isla garbia da. Hartara, Espainiako estatuan estandar zorrotzenen artean dagoen Passivhaus Classic ziurtagiria lortu duen birgaitutako eraikin publiko bakarra da.

Dentro de la apuesta por dignificar los cuidados, este año se ha aumentado en 290.000 euros la partida destinada al servicio de atención domiciliaria para que las trabajadoras tengan unas condiciones justas y las personas mayores una atención de calidad.

También es destacable el resultado de la participación de Hernani en el proyecto nacional Geuretik Sortuak, y que impulsa la creación cultural en euskera. Gracias a este programa, estamos disfrutando de las propuestas de más de una veintena de creadoras y creadores de toda Euskal Herria: literatura, obras de teatro y cortometrajes.



El renovado edificio de la Plaza Feminista y de la Interculturalidad es un referente. La rehabilitación que se realizó siguiendo los estándares más exigentes de ahorro de energía ha tenido su reconocimiento. Actualmente, es el único edificio rehabilitado de uso público que ha conseguido el certificado Passivhaus Classic en el Estado español.

En el ámbito de la sensibilización, la Plaza Feminista y de la Interculturalidad ha lanzado una serie de podcast (Gobara) que mensualmente saca a la luz las importantes aportaciones que realizaron 12 referentes del feminismo y antirracismo.

6

EUROPAKO DIRULAGUNTZAK HERRIRA IRITSI DIRA

Hernaniko Udalak Europako Batasuneko Next Generation funtsetatik bi dirulaguntza nagusi jaso ditu orain arte: 140.000 euro tokiko merkataritza sustatzeko hainbat ekimena egiteko eta mugikortasuna hobetzeko 208.433 euroko laguntza jaso du Landare poligonoko errepidearen eskuhartzeagatik. Espainiako Gobernuak bideratzen ditu Europako funts horiek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bitartez.

Merkataritzari dagokionez, Hernanin garatzen ari diren eta Europak diruz lagunduko dituen proiektuak hauek dira: Hernaniko denden erakusleiho digitala (www.hernanin.eus), Ekilur fidelizazio sistema, Urbietako kalea oinezko bihurtzeko eskuhartzea, bizikleta bidezko etxerako banaketa sistema eta merkatarientzako eta ostalarientzako formakuntza.

Landare poligonoan egindako obrari dagokionez, errepidearen zoladura berri da, espaloiak egin dira baita bidegorri bat ere, mugikortasuna eta oinezkoen zein ibilgailuen segurtasuna areagotzeko asmoz. Izan ere, obra honi esker, Landare errugbi zelaira edo industriagunera oinez eta bizikletaz joaten diren pertsonen segurtasuna hobetu da, lehen ez baitzegoen espaloirik.

Hernani ha recibido fondos europeos por varios proyectos que mejoran la movilidad y que impulsan el comercio y la economía local. Así pues, la intervención en el polígono de Landare (arreglo de carreteras, construcción de un bidegorri y de aceras...) ha sido subvencionada con 208.433 euros. Las acciones relacionadas con el comercio han recibido 140.000 euros: peatonalización de Urbietako, escaparate digital, formación de comerciantes, moneda local...



URBIETA, HERRITARREN AISIALDI, HARREMAN ETA ELKARBIZITZARAKO EREMUA

Urbietan kalean bukatu berri den eskuhartzearen helburua da ibilgailuak erdigunetik atera eta oinezkoentzako espazioak berreskuratzea.

2019an egin zen parte-hartze prozesu bat obra honen eragin zuzena jasoko zuten eragileekin -bizilagunak, merkatariak, taxi gidariak eta kultur taldeak-. Saio horietan antzeman ziren beharrak eta kezkek jaso ziren eta proiektua horien arabera moldatu zen. Eskuhartze arina egitea adostu zen, hau da, egiturazko aldaketarik gabea.

Eskuhartze horrekin erdigunearen eta Kaxkoaren arteko lotura erraztu nahi izan da. Horrekin batera, ekipamendu publiko gehienak biltzen dituen eremuan oinezkoek lehentasuna izatea da asmoa. Bestetik, garraio publikoaren gune nagusi ere bihurtu da.

URBIETA, ESPACIO DE OCIO, RELACIÓN Y CONVIVENCIA CIUDADANA

La intervención recientemente finalizada en la calle Urbietan pretende reducir el tráfico en el centro y ganar espacios peatonales.

En 2019 se llevó a cabo un proceso participativo con los agentes afectados directamente por esta obra -vecindario, comercio, taxistas y grupos culturales-. El proyecto se adaptó a las necesidades y preocupaciones que se detectaron en estas sesiones. Así, se acordó realizar una intervención que no conllevara cambios estructurales.

Se ha pretendido facilitar la conexión entre el centro y el Kaxko. La idea es que los y las peatonas recuperen la prioridad en la zona del municipio donde se concentran los equipamientos públicos.

